



KIROLA

4

4

1. **Sarrera**

- 1.1. Kirola eskubide
- 1.2. Jarduera-ildoen eskema
- 1.3. Aurrekontua

2. **Jarduera-ildoak**

- 2.1. Formazioa
- 2.2. Eskolako kirola
- 2.3. Kirol federatua
- 2.4. Goi-mailako kirola
- 2.5. Jarduera fisikoa, kirola eta osasuna
- 2.6. Kirolaren berrikuntza
- 2.7. Parte-hartzea eta politika transbertsalak

3. **Etorkizuneko erronkak**



1. Sarrera

1.1. Kirola eskubide

14/1998 Legeak, Euskadiko kirolari buruzkoak, agintzen du pertsona guztiek kirola askatasunez eta beren gogoz egiteko duten oinarrizko eskubidea bermatzeko obligazioa dutela agintaritza publikoek, kirola pertsonen formazio eta garapen osorako, pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko eta norbanakoaren eta gizartearen ongizaterako lagungarria den interes publikoko gizarte-jarduera bat denez. Eskubide hau bermatzeak jarduera publiko bat osatu ez ezik, kirola ulertzeko eta kirolak gizarteari egiten dion ekarpena ulertzeko modu jakin bat finkatu ere egiten du.

Testuinguru soziala eta ekonomikoa arras aldatu da lege hori onartu zenez gero eta, horrenbestez, etengabe egokitu behar dira kirolerako eskubidea bermatzeko tresnak ere. Hainbat aldaketa daude, Euskal Autonomia Erkidegoan kirolak gaur egun duen egoera adierazten dutenak:

Lehenik eta behin, aisiarekin eta osasunarekin lotura duten kirol-joera eta premia berriak agertu izana, eta kirola egiten duen edo egin nahi duen jende multzoan askotarikotasun handiagoa izatea. Kirolaren munduan jarduera hori gizartearen gero eta gehiago zabaltzen ari dela ikusten da; horren ondorioz gero eta jende gehiago eta era gehiagotakoa ari da kirola egiten. Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoko Zuzendaritzak eta Kirol Zuzendaritzak jarduera fisikoari eta kirolari buruz egindako diagnosiaren arabera, hamabost urtetik gorako Euskadiko herritarren %29,4 kiroletan parte-hartzaile aktibotzat har daiteke.

Horrekin batera, kirolaren gaur egungo egoeraren beste ezaugarri bat kirol-eskaintza horretan parte hartzen duten erakunde publikoen eta eragile pribatuen askotarikotasuna, barreiamendua eta konplexutasuna da. Egoera horrek eskaintza handia sortzen du alde batetik, baina baita zerbitzuen eta eginkizunen elkarren gainkatze nabarmena ere; alderdi horrek azterketa on bat eta egituratzeko modu hobea behar du, irtenbide berezituak aurkitzeko.

Testuinguru honetan zailtasunak eta arazoak ditu, orain arte Euskal Autonomia Erkidegoko kirol jarduera gehiena egitura-tu duen federazioen ereduak. Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Federazioen urtarilaren 31ko 16/2006 Dekretua federazio horiek delegazioz dituzten administrazio-eginkizun publikoekin zerikusia duten alderdi guztiak arautzeko ahalegin

bat bada ere, ezin izan dira gainditu federazio horien izaerak berak eta kirol profesionalarekin, eskolako kirolarekin eta lehiaketa-ereduekin duten loturak eragiten dituen zenbait arazo eta eztabaida.

Federazio gehiegi izateak berak eraginkortasun falta sortzen du eta, beste alde batetik, arazoak sortzen, lehendik ere federazioen egiturak berak finantzatzeko gero eta arazo gehiago dagoelarik.

Azkenik, azpimarratu beharra dago, orobat, ekonomia krisian dagoen unean finantzaketa publikoaren premia handia duen kirol profesional bat mantentzeko zailtasunak daudela.

Euskal Autonomia Erkidegoan kirolak duen egoeraren ezaugarriok, eta alor honetan gero eta formazio eta berrikuntza gehiago izateko eskakizunak, definitzen duten egoera honetan kirolerako eskubidearen bermea zabaltzen eta hedatzen eta Euskal Autonomia Erkidegoko kirol-sistema hobeto egituratzen ahalegindu da azkeneko urte hauetan Kirol Zuzendaritza.

1.2. **Jarduera-ildoen eskema**

Kirol Zuzendaritzaren jarduera zazpi jarduera-ildotan zentratu da 2009. eta 2010. urte hauetan –jarduera-ildo horietako bakoitzak programa bat baino gehiago du–:

- Kirolerako teknikariei eta beste profesional batzuei formazioa eta prestakuntza eskaintzeko Kirolaren Euskal Eskolaren –Kiroleskola– jarduera bideratzea.
- Eskolako kirola sustatzea, eskolako jolasak birdefinituz eta kirolak hezkuntzan duen eginkizuna aintzat hartuz.
- Kirol-federazioei eta Euskal Autonomia Erkidegoan lehiaketak antolatzeke duen eginkizunari sostengua ematea.
- Goi-mailako kirolari laguntzea, kirolariei lagunduz, kirolerako instalazioak eraikiz eta nazioarteko lehiaketak antolatzeko eta haietan parte hartzeko laguntzak emanez.
- Jarduera fisikoa norbanakoaren eta gizartearen osasunerako eta ongizaterako mesedegarria den jardueratzat sustatzea.
- Kirolaren eremuko berrikuntza, garapenerako eta ikerketarako alor gisa.
- Kirol-munduko eragileen parte hartzea eta haiekiko elkarlana, zenbait erakunderen bidez, eta kirolean ere ikuspegi transbertsala ezartzea.

| JARDUERA-ILDOA | PROGRAMAK |
|---|--|
| Formazioa | Formazio arautua |
| | Etengabeko formazioa |
| | Zabalkundea |
| Escolako kirola | Hiru lurralde historikoetan escolako kirola harmonizatzea |
| | Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoak |
| | Eskolako adinean daudenen Espainiako Txapelketetan eta Topaketetan parte hartzea |
| Kirol federatua | Planifikazioa eta arauen garapena |
| | Federazioentzako laguntza |
| | Kirola eta kultura |
| Goi-mailako kirola | Euskadi Kirola Fundazioa |
| | Fadurako Teknika Hobekuntzarako Zentroa |
| | Erakundeek eta kirolariek nazioarteko jardueretan parte hartzeko laguntza |
| | Nazioarteko kirol-jarduerak antolatzea |
| | Babesa |
| | Kirol-azpiegiturak |
| Jarduera fisikoa, kirola eta osasuna | Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Plana |
| | Jarduera fisikoa aisialdian |
| Kirolaren berrikuntza | Euskadi Kirola Fundazioa - INNOBAT |
| Parte-hartzea eta politika transbertsalak | Kirolaren Euskal Kontseilua |
| | Kiroleko indarkeriaren aurkako Batzordea |
| | Eskolako Kirolaren Euskal Batzordea |
| | Emakumeak eta Kirola Lantaldea |
| | Kiroleko Dopinaren kontrako Lege Proiektua |

1.3. Aurrekontua

Kirol Zuzendaritzaren aurrekontua handitu egin da 2009tik 2010era; ia 15 milioi eurora iristen da; Kultura Sailaren aurrekontu osoaren %5 inguru esan nahi du horrek.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren gastuen aurrekontua zerbitzuz zerbitzu. 2009 - 2010

| | 2009 | | 2010 | |
|------------------------------|--------------------|--------------|--------------------|--------------|
| | € | % | € | % |
| Egitura eta Laguntza | 5.899.054 | 1,9 | 7.376.160 | 2,5 |
| Gazteria eta Gizarte Ekintza | 6.473.748 | 2,1 | 5.658.740 | 1,9 |
| Kirola | 14.261.334 | 4,7 | 14.958.194 | 5,0 |
| Kulturaren Sustapena | 31.000.350 | 10,1 | 34.420.765 | 11,6 |
| Ondarea | 35.954.838 | 11,8 | 30.141.546 | 10,2 |
| Gizarte Hedabideak | 155.189.336 | 50,8 | 150.180.000 | 50,6 |
| Hizkuntza Politika | 56.648.340 | 18,5 | 54.221.595 | 18,3 |
| GUZTIRA | 305.427.000 | 100,0 | 296.957.000 | 100,0 |

Aurrekontua diru-partidaz diru-partida aztertuz gero, garbi ikusten da Zuzendaritza honen gastuen erdia transferentzietara eta diru-laguntzetara bideratzen dela (4. kapitulua). Ondorengo taulak xeheki erakusten duen bezala, kirol-federazioaren eta Euskadi Kirola Fundazioaren jarduera finantzatzera bideratzen dira partida horietako asko. Partida hauen artean ahalegin handi bat dago, orobat, herri-kirolak eta goi-mailako kirola bultzatzeko.

7. kapitulua garrantzi handiena duen bigarrena da; partida horretan erreferentziazko erakunde publikoen-tzako transferentziak eta diru-laguntzak biltzen dira, kirolerako azpiegiturak eraikitzen edo hobetzera bideratuak batez ere.

1. eta 2. kapituluek, langileei eta funtzionamenduari dagozkien gastuenek, Zuzendaritza honen gastuen %16-18 hartzen dute gutxi gorabehera, eta horietan jasotzen dira eskolako kirolerako, Kirolaren Euskal Eskolaren funtzionamendurako, babes eta esponsor-laguntzetarako xedatzen diren partidak, besteak beste.

Kirol Zuzendaritzaren aurrekontua kapituluz kapitulu, 2009 eta 2010

| Kapitulua | 2009 | | 2010 | |
|---|-------------------|--------------|-------------------|--------------|
| | € | % | € | % |
| 1. Langile-gastuak | 1.164.607 | 8,2 | 1.293.824 | 8,6 |
| 2. Funtzionamendu-gastuak | 1.395.997 | 9,8 | 1.177.040 | 7,9 |
| 4. Gastu arruntetarako transferentziak eta diru-laguntzak | 7.200.730 | 50,5 | 6.936.730 | 46,4 |
| Euskadi Kirola Fundazioa | 1.600.000 | 11,2 | 1.600.000 | 10,7 |
| Euskal Kirol Federazioen kirol-Programak | 3.025.730 | 21,2 | 3.385.000 | 22,6 |
| Goi-mailako kirol-txapelketak antolatzea | 430.000 | 3,0 | 430.000 | 2,9 |
| Goi-mailako kirol-txapelketetan parte hartzea | 560.000 | 3,9 | 560.000 | 3,7 |
| Euskal Kirol Federazioen Batasuna | 355.000 | 2,5 | 300.000 | 2,0 |
| Herri-kirola | 1.091.000 | 7,7 | 543.000 | 3,6 |
| Eliteko emakumezko taldeak | | 0,0 | 100.000 | 0,7 |
| Beste sektore edo erakunde batzuk | 139.000 | 1,0 | 18.000 | 0,1 |
| 6. Inbertsio errealak | 800.000 | 5,6 | 2.000.600 | 13,4 |
| Euskal Kirol Federazioen Egoitza | 300.000 | 2,1 | 2.000.000 | 13,4 |
| Getxoko Teknika Hobekuntzarako Zentroa | 500.000 | 3,5 | 600 | 0,0 |
| 7. Kapital-eragiketarako transferentziak eta diru-laguntzak | 3.700.000 | 25,9 | 3.550.000 | 23,7 |
| Foru Aldundiak | | 0,0 | 200.000 | 1,3 |
| Udalak – Kiroletarako azpiegiturak | 3.700.000 | 25,9 | 3.350.000 | 22,4 |
| GUZTIRA | 14.261.334 | 100,0 | 14.958.194 | 100,0 |

OHARRA: Taula hau dagoeneko programatuta dagoen aurrekontuari dagokio. Kirol Zuzendaritzaren kasuan, alde handiak daude egiaz betetakoari dagokionez: 2010ean Donostian Euskal Federazioen egoitza berria eraikitzeko xedatutako aurrekontua ez zen gauzatu. Errotabururik dauden lokal berri batzuk alokatzea erabaki zen azkenean; urtean 158.000 €-ko gastua dute alokatzeko eta mantentzeko. Era berean, beste 1.700.000 €-ko partida batzuk, Udalentzako transpaso gisa izendatuak, ez ziren bete azkenean.

2. **Jarduera-ildoak**

2.1. **Formazioa**

Testuingurua. **Kirol-prestakuntza**

Ekainaren 11ko 14/1998 Legeak, Euskadiko Kirolari buruzkoak, eginkizun hauek izendatzen dizkio Kirolaren Euskal Eskolari:

- a) Kirol-teknikarien formazio-Programak planifikatzea eta koordinatzea.
- b) Zuzendarien eta epaileen formaziorako Programak planifikatzea eta koordinatzea, kirol-federazioen programa berezien arabera.
- c) Kirol-teknikako ikerketa Programak sustatzea eta bultzatzea.
- d) Ikastaroen, zentroen, tituluen eta gainerako informazio interesgarrien erregistro bat sortu eta kudeatzea.
- e) Kirol gaietako azterketak argitaratzea eta zabaltzea.
- f) Kirol-dokumentazioko zerbitzu bat antolatzea.
- g) Kirol-teknifikazioko ikastaroak, mintegiak, hitzaldiak eta bestelako Programak antolatzea edo egitea.
- h) Kirol-federazioei eta bestelako zentzoei teknikarientzako eta epaileentzako formazio-programez aholkularitza eskaintzea.

Sei urteko lanaren buruan **Kirolaren Euskal Eskola** erreferentziazko puntu gisa finkatu da Euskal Autonomia Erkidegoko kirol-teknikarien eta kudeatzaileen artean, eta 19 kirol espezialitatetako 600 entrenatzaile-agiritik gora eman ditu dagoeneko; eta 2.900etik gora matrikulazio izan ditu.

Urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretuak erabakitzen du erregimen bereziko kirol-irakaskuntzen antolamendu orokorra, eta kirol-modalitate edo espezialitate bakoitzak bere tituluen erregulazio berezia izan behar duela agintzen du. Gaur egun onartuta dauden erregulazioak hauek dira: mendia eta eskalada (318/2000 ED), neguko kirolak (319/2000 ED), futbola eta aretoko futbola (320/2000 ED), atletismoa (254/2004 ED), eskubaloia (361/2004 ED), saskibaloia (234/2005 ED), espeleologia (64/2010 ED), kirol murgilketa (932/2010 ED), zaldiketa (933/2010 ED eta 934/2010 ED), belaontziak (935/2010 ED eta 936/2010 ED), judoa eta norbere defentsa (705/2011 ED eta 706/2011 ED) eta salbamendua eta sorospena (878/2011 ED eta 879/2011 ED). Oraindik ere «bitarteko aldiak» dauden modalitateak dira Kirolaren Euskal Eskolan ematen direnak; erregulazio berezia dutenak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ematen ditu, Euskadiko kirol-ikasketen erreferentzia-zentro publikoa – Kirolene erakundearen

bitartez, eta baita, futbolari eta aretoko futbolari dagokienez, Lurraldeko Futbol Federazioen bitartez, zentro baimendutzat hartzen direnez. Alde honetatik azpimarratzekoa da Kirolaren Euskal Eskolaren eta Kiroleneren arteko elkarlan-maila ona.

Programak. **Kudeaketa-eredu berri bat**

2010ean antolamenduaren aldaketa handi bat egin da Kirolaren Euskal Eskolan; Kirol Zuzendaritzako arduradunak izendatu baitira Eskolaren kudeaketaz arduratzeko. Aldaketa hori egiteko egokitzeko aldi bat behar izan da, eta eskolaren jardueran eragina izan du. 2010eko aurrekontua 269.725 €-koa izan da eta 2009koa 302.190 €-koa izan zen; Eskolaren jarduera egituratzen duten programa nagusiak aldatu gabe mantendu dira:

Titulu ofiziala ateratzeko formazioa

2009an 14 modalitate edo espezialitatetako 103 diploma eman ziren eta 2010ean 12 modalitatetako 135 diploma izan dira eman direnak. Eskolaren kudeaketa-ereduan izan diren aldaketen ondorioz, matrikulazioak jaitsi egin dira. Kirolaren Euskal Eskolak bloke komunetako formazioa eskaintzen du eta modalitate bakoitzeko federazio autonomikoek antolatzen dituzten bloke bereziak eta praktikaaldiak egiteko baimenak ematen dira eta gainbegiratzen dira.

Titulu ofiziala ateratzeko formazio-jardueren adierazleak

| | 2009 | 2010 |
|-----------------------------------|------|------|
| Eman diren diplomak | 103 | 135 |
| Eman diren diploma motak | 14 | 12 |
| Bloke komunetarako matrikulazioa | 246 | 228 |
| Bloke berezietarako matrikulazioa | 238 | 185 |

Etengabeko formazioa

Kirolaren Euskal Eskolak zuzenean kudeatzen duen formazio-eskaintzaz gainera, Eskola horren beste eginkizunetako bat Euskal Autonomia Erkidegoko kirol-formazioko jarduera guztiak ezagutaraztea da, horretarako informazioa katalogatuz eta argitaratuz. 122 jardueraren publizitatea egin da eta 4.202 helbidetara iristen den buletin digital batez eta web orriaren bitartez egin da zabalkundea.



Formazio arautuko jardueren adierazleak

| | 2009 | 2010 |
|-------------------|------|------|
| Matrikulazioak | 344 | 205 |
| Itxarote-zerrenda | 104 | 87 |

Kirolaren Euskal Eskolak zuzenean kudeatzen duen formazio-eskaintza gainera, Eskola horren beste eginkizunetako bat Euskal Autonomia Erkidegoko kirol-formazioko jardura guztiak ezagutaraztea da, horretarako informazioa katalogatuz eta argitaratuz. 122 jardueraren publizitatea egin da eta 4.202 helbidetara iristen den buletin digital batez eta web orriaren bitartez egin da zabal-kundea.



Publizitatea egin zaien jardueren adierazleak

| | 2009 | 2010 |
|-----------------------------------|-------|-------|
| Publizitatea egin zaien jarduerak | 77 | 45 |
| Bidalitako buletin digitalak | 10 | 5 |
| Buletina jasotzen duten helbideak | 3.622 | 4.202 |
| Web orrian argitaratutako berriak | 14 | 5 |

2.2. Eskolako kirola

Testuingurua. **Kirolaren hezkuntza-eginkizuna**

Eusko Jaurlaritzak badu eskumena eskolako kirolaren oinarri eta printzipio orokorrak, kirol horren diziplina-erregimena eta txapelketak arautzeko. Indarrean dagoen araudiak erkidego mailako eskolarteko txapelketak antolatzeko, kalifikatzeko eta baimentzeko eginkizuna ere ematen dio, eta, eskumen horren bitartez, haur mailako Euskadiko Eskolarteko Jokoak arautzen ditu.



Ekainaren 1eko Eskolako Kirolari buruzko 125/2008 Dekretuaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko neskato eta mutikoen heziketa integralaren osagaitzat hartu behar da eskolako kirola. Dekretu horren bidez arau batzuk finkatzen dira Euskal Autonomia Erkidego osoan Eskolako Kirol Eredu bakar bat ezartzeko, horretarako Foru Aldundiek programa hauek garatuz, hiru lurralde historikoetan eredia homogeneizatzen ahaleginduz betiere.

Programak. **Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoak**

Uztailaren 1eko Euskadiko Kirolari buruzko 14/1998 Legeak agintzen duenak eragiten dituen obligazioen arabera, Kirol Zuzendaritzak urtero antolatzen ditu Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoak. 2009ko eta 2010eko Jokoetan 1.539 eta 1.473 parte-hartzaile izan ziren, hurrenez hurren; nesken eta mutilen artean oro har oreka izan zen. Lurraldez lurralde begiratura, Gipuzkoa da parte-hartzaile gehien izan duena.

Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoetako parte-hartzaileak

| | 2009 | | | 2010 | | |
|----------------|------------|------------|--------------|------------|------------|--------------|
| | Nesakak | Mutilak | Guztira | Nesakak | Mutilak | Guztira |
| Araba | 154 | 207 | 361 | 194 | 196 | 390 |
| Gipuzkoa | 289 | 294 | 583 | 264 | 286 | 550 |
| Bizkaia | 279 | 218 | 497 | 273 | 260 | 533 |
| GUZTIRA | 765 | 774 | 1.539 | 731 | 742 | 1.473 |

Beste alde batetik, Kirol Zuzendaritzak, Kiroletako Kontseilu Gorenarekin koordinaturik, eskolako adineko haurrentzako erkidegoetako selekzioen Espainiako Txapelketan Euskadiren parte hartzea antolatu du –500 parte-hartzaile urtean, 15 kirol-modalitatetan–, eta baita Jarduera Fisikoa eta Kirola sustatzen duten Eskolen Topaketetan parte hartzea ere.

2.3. **Kirol federatua**

Testuingurua. **Egokitu beharra**

Kirol-federazioek eginkizun erabakigarria eta egituratzailea jokatu dute tradizioz Euskal Autonomia Erkidegoko kirol-sisteman. Eginkizun horri dagokionez, hala ere, eztabaida sutsuak izan dira kirol-federazioek betetzen dituzten eginkizunen izaera pribatu edo publikoari buruz. Hori dela-eta, kirol-federazioek betetzen duten eginkizun publikoa arautzeko asmoz, 2006ko urtarrilean 16/2006 Dekretua onartu zen, eta hori da gaur egun arauzko erreferentzia-markoa.

Ekonomiaren krisiak, iraganeko egitura berberak mantentzeko zailtasunek, kirola politika publikoaren eremutat hartzen duen ikuspegiak eta eskolako kirola bezalako Programak zabaltzeak eragiten dute federazio-eredua egokitzen zaila izatea eta oraindik ere etengabeko eztabaidak izatea horri buruz.

Programak. **Federazioei laguntzea**

Azkeneko urte hauetan Kirol Zuzendaritzaren ekimen nagusietako bat **ekainaren 22ko 163/2010 Dekretua**, kirol-klubei eta kirol-elkarteei buruzkoa, prestatzea izan da. Dekretu honen bitartez, ekainaren 11ko 14/1998 Legeak, Euskadiko Kirolari buruzkoak diseinatzen duen kirol-elkarteen eredu berria garatu nahi da eta, aldi berean, ordu arte indarrean zegoen Dekretuaren aplikazioak sortzen zituen zenbait arazori erantzutea. Dekretu honek dakarren garrantzi handiko berrikuntza bat kirol-erakundeen araudia sinplifikatzea da; era horretan erakunde hauen lege-erregimena elkarteen erregimen orokorraren arabera osatzen da.

Alor honetan beronetan, kirol federatuari buruz egindako informazio-bilketa eta informazio horren sistematizatzelana azpimarratu behar da; horretarako *Federazioen sarrera publikoen eta lizentzia kopuruaren mapa* bat egin da eta Kirol Erakundeen Erregistroa mantentzeko sistema informatiko bat jarri da abian.



Kirol Zuzendaritzak laguntza handia ematen die kirol-federazioei. Alor honetan, Euskadiko kirol federazioentzako egoitza berri bat jarri da abian Donostian, Zuzendaritza honek finantzatuta; horrez gainera, zuzeneko diru-laguntza izendun bat ematen zaio urtero **Euskadiko Kirol Federazioen Batasunari**; 2009an 355.000 €-ko laguntza izan zen eta 2010ean 300.000 €-koa.

Diru-laguntza izendun horiez gainera, Zuzendaritza honek laguntza-bide bat mantendu du, bai 2009an bai 2010ean, Euskadiko **kirol-federazioen kirol-programetarako**. 48 federaziori eman zitzaien laguntza; 6,4 milioi eurotik gora banatu ziren guztira.

Herri-kirolen federazioek, beren aldetik, kirol-programetarako esparruari dagozkion diru-laguntzez gainera diru-laguntza bereziak jasotzen dituzte Kirol Zuzendaritzatik, beren plan estrategikoak garatzeko. Helburu horretarako Euskadiko Herri-kiroletako Federazioaren, Euskadiko Euskal Pilota Federazioaren, Munduko Pilota Batzarra Elkartearen eta Arraunketako Euskal Federakuntzaren plan estrategikoetarako eman da laguntza, zehazki.

Kirol federatuetarako laguntzaren laburpen-koadroa

| Laguntza mota | 2009 | 2010 |
|--|-------------|-------------|
| Euskadiko Kirol Federazioen Batasuna | 355.000 € | 300.000 € |
| Euskal Kirol Federazioen kirol-Programak | 3.025.730 € | 3.385.000 € |
| Herri-kirola | 1.091.000 € | 543.000 € |

2.4. **Goi-mailako kirola**

Testuingurua. **Talentua eta lehiakortasuna ekonomiaren krisi-egoeran**

Goi-mailako kirolak arazo handiak ditu ekonomikoki mantentzeko, diziplina minoritarioetan batez ere; zailtasun horiek are larriago bilakatu dira azkeneko urte hauetan, diru publikoetan eta erakunde pribatuek esponsor gisa jokatzeko duten ahalmenean, bietan ere eragin handia duten ekonomiaren egoera larriagatik.

Errealitate horren ondoan, Euskal Autonomia Erkidegoko kirolarien talentua eta lehiakortasuna hazi egiten dira, eta emaitza ohargarriak lortzen dituzte hainbat lehiaketa eta espezialitatetan. Euskadi markaren eta goi-mailako kirolariek lotzen diren balioen arteko lotura sustapen-eredu ona da bai barrurako bai kanporako.

Aipamen berezia merezi du uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuak, Goi Mailako Kirolari buruzkoak, goi-mailako kirolariei, teknikariei eta epaileei emateko laguntza, sostengua eta onurak arautzen dituenak, goi-mailako izaera hori lortu duten kirol-zentroak ere badirela ahaztu gabe.

Programak. **Goi-mailako kirolari eta txapelketentzako laguntza**

Goi-mailako kirolariei laguntzeko tresna garrantzitsuena Euskadi Kirola Fundazioak ematen dituen **Euskadi Kirola beka** dira. 2009 eta 2010 bitartean 128 beka eman dira, guztira, eta Kirol Zuzendaritzak Fundazio horretarako bideratu duen aurrekontua 1,6 milioi eurokoa izan da urte bakoitzean.

Euskadi Kirola Fundazioarentzako aurrekontuaren eta emandako beken laburpen-koadroa

| | 2009 | 2010 |
|--|-----------|-----------|
| Kirolarientzako beka jaso dituztenak | 48 | 32 |
| Kirol-erakundeetarako beka jaso dituztenak | 4 | 1 |
| Teknikarientzako beka | 27 | 16 |
| Zuzendaritzak Euskadi Kirola Fundazioarentzat bideratutako aurrekontua | 1.600.000 | 1.600.000 |

Fadurako Teknika Hobekuntzarako Zentroak berriro zabaldu du Kirolarien Egoitza; horrekin bultzada handi bat eman zaion berriro Euskadiko Goi Mailako Zentroen Koordinazio Zentroa izatekoa den Euskal Autonomia Erkidegoko erreferentziako zentro honi.

Goi-mailako kirolarentzako laguntza diru-laguntza bidez, kirol gertaera bereziei lagunduz, babes-kontratuen bidez eta kirol-azpiegituren finantzaketarako laguntzak emanez ere bideratzen da.

Diru-laguntzen bideei dagokienez, urtean bi deialdi egin ditu Kirol Zuzendaritzak: bat goi-mailako kirol-txapelketetan parte hartzeari laguntzeko eta bestea goi-mailako kirol-txapelketak antolatzeari laguntzeko. Lehenengo helbururako 1,12 milioi euroko laguntzak eman dira 2009an eta 2010ean, eta bigarren helbururako 873.500 €.



Goi-mailako txapelketak antolatzeke eta haietan parte hartzeke laguntza-bideen laburpen-koadroa

| | 2009 | | 2010 | |
|---|--------------------------------|----------|--------------------------------|----------|
| | Laguntza jaso duten erakundeak | Laguntza | Laguntza jaso duten erakundeak | Laguntza |
| Goi-mailako kirol-txapelketetan parte hartzea | 15 | 560.000 | 19 | 560.000 |
| Goi-mailako kirol-txapelketak antolatzea | 34 | 443.500 | 33 | 430.000 |

Kirol Zuzendaritzak laguntzak eman ditu nazioarteko kirol-ekitaldi batzuei laguntzeko ere, hala nola Gasteizko Nazioarteko Saskibaloia Txapelketarako, Espainiako Selektzioaren Mundobasket 2010erako prestaketaren barruan, Donostiako Kontxako Arraunlari Lehiaketetako Emakumezkoen Banderarako eta Saskibaloiko Euskalkopa 2010-2011 antolatzeke.

Azkenik, goi-mailako kirolarentzako laguntzen esparru honetan bertan, aipatzekoa da Kirol Zuzendaritzak zenbait kirol-azpiegitura abiarazteko elkarlanean izan duen parte; horien artean aipatzekoa da Donostian Hegala Zabalik Kirol Egokituaren Zentroa eraikitzea; aldi honetan 2 milioi euro bideratu dira xede horretarako.



2.5. Jarduera fisikoa, kirola eta osasuna

Testuingurua. **Jarduera fisikoaren ikuspegi integrala**

Kirolaren Euskal Plana 2003-2007 eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoko Zuzendaritzak abiarazitako Bizimodu Osaungarriaren Estrategia (2008) dira Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera fisikoari ikuspegi integral batetik ekiteko bi erreferentzia nagusiak. Jarduera fisikoa ikuspegi zabaletik begiratuta hartzen da era horretan, ez lehiatzeko kirolari lotuta bakarrik, jendearen bizi-kalitatea hobetzeko duen eginkizunetik begiratuta baizik. Alde honetatik, bada, jarduera fisikoa sustatzea ez da hartu behar jarduera-eremu mugatu bateko politikari lotuta balego bezala, alderantziz baizik, ongizate-ereduari lotuta, alegia, osasunerako, hezkuntzarako eta gizartearen kohesiorako dakartzan onurengatik.

Programak. **Jarduera fisikoa planifikatzea eta sustatzea**

Kirol Zuzendaritzak azkeneko urte hauetan gai honi dagokionez izan duen jarduera zentratu duen gaietako bat **Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Planerako** ekimen-markoa prestatzea izan da. Osasun Publikoko Zuzendaritzarekin batera Koordinazio Batzorde bat sortu zen jarduera fisikoari eta kirolari dagokien politika garatzeko erreferentziazko oinarritzko tresna izatekoa den dokumentu hori prestatzeko ardurarekin (dagoeneko badago lehenengo bertsio bat, zabaldu eta eztabaidatzeko).

Planifikazioarekin batera, hala ere, **aisia aldiko jarduera fisikoa** sustatzeko proiektuetan lan egin da. Basque trail proiektuaren bidez, hain zuzen ere, aisia aldiko kirol-jarduerak ugaltzeko nahi dira.

2.6. **Kirolaren berrikuntza**

Testuingurua. **Kirola hobetzeko behar diren berrikuntzak**

Kirolean teknika berrien ikerketak eta teknika horien garapenak bide luzea egin du dagoeneko, eta bide luzea du egiteko oraindik ere. Ikertzeko aukera handiak daude kirol-jardueran teknologia aplikatzeari buruz, industria aurreratu bat garatzeko eta gai honetan ekonomiazko ekimenak sortzeko aukerak dituen esparru bat denez. Horrexegatik, hain zuzen, Kirol Zuzendaritzak kirolaren berrikuntzarako politikak bideratzen ditu Euskadi Kirola Fundazioaren bitartez.

Programak. **Kirolaren berrikuntzarako proiektuei laguntzea**

Euskadi Kirola Fundazioaren bitartez kirolaren berrikuntzarako proiektuei laguntzeko INNOBAT programa abiarazi da. Programa honen bitartez proiektu hauei laguntzen zaie:

- Tebas, kostu apaleko kirol-emankizunak ekoizteko.
- Olimpia VELA, lehiaketa eta Euskadiko itsasketako industria batuz Europa osoan erreferentziazkoa izango den be-laontzi bat ekoizti nahi duena.
- TRZ-MIMEF: laktato-maila etengabe, segituan eta zauririk eragin gabe neurtzeko teknologia bat garatzekoa.

2.7. **Parte-hartzea eta politika transbertsalak**

Testuingurua. **Koordinatuta eta ikuspegi transbertsalez jokatu beharra**

Euskal Autonomia Erkidegoko kirol-sistema osatzen duten eragileen mapa oso zabala eta askotarikoa da; badira eragile publikoak eta pribatuak, handiak eta txikiak; horrek aberastasuna dakar alde batetik, baina zailtasunak ere bai, bestetik. Koordinazioa guztiz beharrekoa da eragile guztiak eta kirol-sistema oro har hobetzeko.

Beste alde batetik, kirola eskubidetzat hartzeak eta eta horrek eskatzen dituen politika publikoek parte hartzeko esparruak artikulatzea eta eragile desberdinak edo jarduera politikoko ildo desberdinak inplikaturako dituzten programa transbertsalak garatzea eskatzen dute.

Programak. **Erakundeak eta politika transbertsalak**

Euskal Autonomia Erkidegoko kirolaren esparruan badira zenbait erakunde, programen eta eragileen artean koordinazio on bat antolatzeko eta kirolaren eremuan lan transbertsaleko ildoak garatzeko sortuak.

Kirolaren Euskal Kontseilua, azaroaren 7ko 220/2000 Dekretuaren 1. Artikuluak zehazten duen bezala, Administrazio publikoen artean Euskal Autonomia Erkidegoko kirol-politikari dagozkion gaietan aholkularitza, kontsulta, jarraipena eta sektore barruko eztabaida bideratzeko goi-mailako organoa da. Bi urte hauetan zehar zenbait bilera egin ditu eta Euskal Federazioen Dekretua prestatzeko lanen jarraipena egin du.

Maiatzaren 25eko 94/2004 Dekretuak **Kiroleko indarkeriaren aurkako Euskal Batzordea** arautzen du, kiroleko indarkeriari dagokion guztiaren jarraipena egitea eta aholkuak ematea dagozkion organismo gisa. Zentzu honetan, organismo honek, aldiro bilduz, hainbat esparrutan bultzatzen ditu ekimenak, indarkeriaren arazo honi transbertsal iritzirik; ekimen horien artean aipatzekoa da **Kirolalde**, adibidez, eskolako kirolean indarkeriaren prebentzioa egiteko programa.

Parte hartzeko eta koordinaziorako beste esparru bat lehen ere aipatu den **Eskolako Kirolaren Euskal Batzordea** da; alor honetako Programak harmonizatzen etengabeko lana egiten du.

Kirol Zuzendaritzak ekimen asko bultzatzen ditu kirolean gizonezkoen eta emakumezkoen artean berdintasuna aztertze-ko, bultzatzeko eta indartzeko. Hala, 2005ean **Emakumeak eta Kirola Lantalde** bat jarri zen abian; lantalde honek bere ardurapean du Zuzendaritzaren politikak genero-ikuspegitik begiratuz aztertzea, Kultura Sailaren berdintasun-planen ondorioz bideratzen diren ekimenak abian jartzea, kirolean berdintasun-politikak bultzatzeko aurrekontu bereziak dituzten proiektuak planifikatzea, betetzea eta ebaluatzea.

Kirol Zuzendaritzak gai honi dagokionez bideratu dituen jardueren artean, formazio ekimen askotan hartu du parte eta haien sustapena egin du; horien artean aipatzekoak dira 2010ean Sidney hirian Emakumea eta Kirola gaiari buruz burututako Mundu osoko Konferentzia aurkeztutako ponentzia, UPV-EHurekin batera ikastaroak antolatu izana, eta Bizkaiko Foru Aldundiak, HAEEK eta Vigoko Unibertsitateak antolatutako jardunaldietan parte hartu izana. Horiek batera kontuan hartu behar da mahainguruetan eta Emakumeak goi-mailako kirolean gaiari buruzko mintegian parte hartzea. Baina kirolean genero-ikuspegia ezagutarazteaz eta gai honi buruz sentsibilizatzeari gainera, gai honi buruzko ikerketa bultzatu ere egiten du Zuzendaritzak, horretarako bekak emanez eta Euskadiko Kirol Federazioetan genero-ikuspegiarekin orientatutako eta trebakuntza ikastaroak antolatuz. Honi dagokionez, ezinbestekoa da ikerketarako oinarri gisa estatistikak eta datuak edukitzea. Azkenik, aipatzekoa da orobat alor honetan Kirol Zuzendaritzak Txingurdi Saskibaloia Hondarribia-Irun saskibaloiko eliteko emakume taldeari emandako laguntza.

Horrela bada, genero-ikuspegia kontuan duen begirada hori Zuzendaritzaren beraren politketara, hala nola programetara edo diru-laguntzetara, zein kirol-jardueran egiaz duen presentziara zuzentzen da. Abian jartzen hasi den sustapen- eta sentsibilizazio-lana ezinbestekoa da kirol-munduan emakumeen eta gizonen arteko egiazko berdintasuna bultzatzeko.

Kirol Zuzendaritzak azkeneko urte hauetan begien aurrean izan duen jarduera transbertsaleko beste alor bat dopinaren kontrako borroka erabakia izan da, horretarako Euskal Federazioekin elkarlanean kontrol-programa estu bat bideratuz; ez dira ahaztu behar, era berean, **Euskadiko Dopinaren Aurkako Lege Proiektuaren** prestaketa-lanak. Lege berri honen bitartez, 14/1998 Legeak Euskal Autonomia Erkidegoan dopinaren prebentzioaz, kontrolaz eta errepresioaz jarritako xedapenak errealitate berrira egokitu nahi dira, dopina egiaz errotik erazteko asmoz. Aurreproiektuan Dopinaren aurkako Euskal Agentzia bat sortzea proposatzen da, esate baterako, kiroleko etikari ez ezik kirolarien osasunari ere kalte egiten dioten jokamolde horien kontrako sentsibilizazio-, disuasio- eta jazarpen-politikak bideratzeko tresna gisa.



3. **Etorkizuneko erronkak**

Kirola eskubide gisa hartzeak kirol-politikaren erdigunea herritarrengan jartzea esan nahi du, eta, ikuspegi horretatik begirata, Euskal Autonomia Erkidegoan kirol-munduan estrategia berri bat abiaraztea. Alde horretatik begirata, datozen urte hauetan berebiziko garrantzia izango duen tresna bat Osasun Publikoko Zuzendaritzak eta Kirol Zuzendaritzak elkarrekin koordinaturik prestatutako Jarduera Fisikoaren Euskal Plan berria –AKTIBILI– izango da; plan honen helburu nagusia Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen artean jarduera fisikoa erregularki egiteko ohitura handitzea da.

Kirolari dagokion politikaren ikuspegi zabal honek, garrantzirik handiena herritarrei aitortzen dienez, ikuspegi transbertsal bat aplikatu beharra dakar. Euskal kirolaren sistema osatzen duten eragile, diziplina, antolamendu-maila, administrazio eta programen ugaritasuna kontuan hartuta, gerta daiteke oso esparru itxiak eta beren artean zuzeneko loturarik ez dutenak dituen errealitate bat dela iruditzea. Baina kirolaren errealitate horren ikuspegi transbertsal bat izateak alor bakoitzean estrategia transbertsalak ahalbidetzeko bidean aurrera jarraitzea eskatzen du: osasunean, berrikuntzan, berdintasunaren alde, indarke-



riaren, dopinaren kontra, eta abar, hala eremu guztietan kirolak gizartean duen eginkizunarekin lotuta dauden balioak landu daitezten eta eragileen artean harremanak eta gogo-kidetasunak lotu daitezten.

Eskolako kirol-praktikari dagokionez, kirolerako eskubidea bermatzeko eta kirol-jarduera bultzatzeko eredia finkatu eta zabaltzeko lanean jarraitzen da. Ikuspegi honetatik, 2008ko eskolako kirolari buruzko Dekretua garrantzi handiko mugarri bat izan zen Euskal Autonomia Erkidegoko testuinguru osoan eskolako kirola ikusteko eta koordinatzeko moduari dagokionez. Geure eredu berezi bat garatzeko egindako ahaleginek emaitza onak ekarri dituzte, eta etorkizuneko ahaleginak zuzentzeko bidea erakutsi dute.

Kirolaren eginkizun sozialari dagokionez bada, orobat, eztabaida bat klub handien eta kirol-txapelketen funtzio publikoaz eta horiek administrazioekin dituzten harremanez; are gehiago, gainera, laguntza pribatuen beherakadak ekarri dituen finantzaketarako zailtasunek markatzen duten egoera batean. Alde horretatik, berebiziko garrantzia duen gaia da kirolaren euskal sisteman erakunde publikoen eta pribatuen arteko lankidetzari dagokiona. Erakunde pribatuen burujabetasunari zor zaion errespetua kontuan hartuta, eta kirola politika publikoari dagokion gai bat dela ahaztu gabe, Euskal Autonomia Erkidegoko kirol-sistema osatzen duten eragile guztien gogo-kidetasuna lortzeko bidean aurrera egin behar da, irizpideak eta helburuak batzeko eta helburu horietara iristeko ahaleginak bateratzeko asmoz. Kirol-klubei eta goi-mailako kirolari laguntzeko politikak garatzeko ekimena arrazabaldur da, etorkizuneko euskal kirolaren sistemaren oinarriak ezartzeko etengabeko lan bati esker.

Erakunde publikoen eta pribatuen arteko elkarlanaren adibide eta eredu on bat Euskadi Kirola Fundazioa da, eta horrek erakusten ditu etorkizunean jarraitu beharreko jarduerak. Goi-mailako kirolari laguntzeko tresna honek oso emaitza onak ekarri ditu, Euskal Autonomia Erkidegoko kirolarietako txapelketetan izan duten arrakastak eta, Euskadiko markaren pean, kirolarietako herritarrentzako eredu gisa eta herrialde hau ezagutarazteko egiten duten ahalegin eta sakrifiziozko balioak transmititzeak erakusten duen bezala.

Goi-mailako kirolaren alor honetatik irten gabe, nabarmentzekoa da kirolarientzako egoitza berriro zabaldu duen Faturako Teknika Hobekuntzarako Zentroak etorkizunean Euskal Autonomia Erkidegoko Goi Mailako Zentroyen Koordinatzaile gisa izan behar duen garrantzi handiko papera.

Beste alde batetik, hazteko aukera zabalak dituen beste alor bat kirolarietako berrikuntzari dagokiona da. Alor honetan lan egiteak kirolarientzako berrikuntza teknologikoen eremuan diharduen kirol-industria bat garatzeko aukera bikaina ekar lezake.

Kirolaren Euskal Eskolak, azkenik, kirolarien formazio berezitua eskaintzen eta federazio desberdinen arteko adostasuna biltzen jarraitu behar du. Era berean, behin erakunde honen kudeaketa-ereduaren aldaketa-prozesua burutuz gero, zentro honetan formazio-maila egoki bat eta kalitate ezagutu bat mantentzea da erronka nagusia. Badira oraindik formazio-eskaintza bereziturik egiten ez duten federazioak, eta horrexegatik ez dira betetzen formazioari dagokionez oraindik ere geratzen diren hutsuneak. Alor honetan, bada, Kirolaren Euskal Eskolak federazioekin harremanak edukitzen jarraitu behar du, eta ahal izanez gero harreman horiek biziagotu, teknikarientzako ikastaroak egiteko aholkularitza eta laguntza eskaintzeko.